



1. Zein urtetan sortu zen Espainiako Konstituzioa?

- A) 1987an
- B) 1978an
- C) 1988an

2. Zer esan nahi dugu “Herriaren subirotasunaz” hitz egiten dugunean?

- A) Herritarrek ematen dietela boterea agintariei.
- B) Agintariek ematen dietela boterea herritarrei.
- C) Herritarrek ematen dietela boterea Erregeari edo Erreginari.

3. Zein dira ordezkari gorenak Monarkia Parlamentarioa duen herrialde batean?

- A) Legeak.
- B) Gobernuko presidentek.
- D) Erregea edo Erregina.

4. Zein da duzun diruaren eta ordaintzen dituzun zergen arteko lotura?

- A) Zenbat eta diru gutxiago gastatu, zerga gutxiago ordainduko duzu.
- B) Zenbat eta diru gehiago aurreztu, zerga gehiago ordainduko duzu.
- C) Zenbat eta diru gehiago irabazi, zerga gehiago ordainduko duzu.



5. Zer eskubide ditu pertsona batek salatzen dutenean?

- A) Zergatik salatzen duten jakitea.
- B) Abokatu batek epaitzea.
- D) Epaile batek aholkatzea.

6. Zer beharrei erantzuten die Udal bakoitzak?

- A) Bere Tokiko Gobernu Batzordean bizi diren pertsonen beharrei.
- B) Bere udalerrian bizi diren pertsonen beharrei.
- C) Bere lurraldean bizi diren pertsonen beharrei.

7. Zein da zuzena 3 esaldi hauen artean?

- A) Udalerri baten bizilaguna izateko, gutxienez hilabete bat lehenago erroldan izena eman behar duzu.
- B) Udalerri batean lan egiteko, erroldan izena eman behar duzu.
- C) Errolda da udalerri batean bizi diren biztanleen zerrenda.

8. Nor EZ da Udal-korporazioaren parte?

- A) Funtzionarioak.
- B) Alkatea.
- C) Zinegotziak.

9. Zein da Udalaren organorik garrantzitsuena?

- A) Udalbatza.
- B) Tokiko Gobernu Batzordea.
- C) Alkatetza.



10. Non aukeratzen da alkatea izango den pertsona?

- A) Tokiko Gobernu Batzordean.
- B) Udaleko lehen Osoko Bilkuran.
- C) Lehen auzo-batzordean.

11. Nor dira Gasteizko udalerrria antolatze eta kudeatzeko arduradunak?

- A) Gobernu Batzordea, Udalbatzarekin elkarlanean.
- B) Gobernu Batzordea, alkatearekin elkarlanean.
- C) Gobernu Batzordea, zinegotzi guztiekin elkarlanean.

12. Non egiten eta eztabaidatzen dira Gasteizko udal-proposamenak?

- A) Alkatetzan.
- B) Tokiko Gobernu Batzordean.
- C) Udalbatzan.

13. Zenbat aldiz biltzen da Gasteizko Udalbatza ohiko bilkuran?

- A) Hilean behin.
- B) Hilean bitan.
- C) Astean behin.



14. Zenbat sailetan banatzen da Gasteizko Udala?

- A) 14.
- B) 13.
- C) 12.

15. Zer egiten du Gasteizko Udaleko Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailak?

- A) Hautatze-prozesuak antolatzen ditu.
- B) Euskara ikasi eta erabili dadila bultzatzen du.
- C) Kirolari laguntzeko politikak bultzatzen ditu.

16. Sail hauetatik, zein BADAGO Gasteizko Udalean?

- A) Gobernantzaren Saila.
- B) Enplegu Publikoaren Saila.
- C) Funtzio Publikoaren Saila.

17. Zein sail arduratzen da Gasteizko udal ondarearen zerrenda egiteaz eta eguneratzeaz?

- A) Ekonomia Sustapenaren Saila.
- B) Udal Ondarearen Saila.
- C) Ogasun Saila.



**18. Zein sailek antolatzen ditu
Andre Maria Zuriaren jaiak?**

- A) Festen eta Folklorearen Sailak.
- B) Kultura eta Hezkuntza Sailak.
- C) Alkatetzaren Sailak.

19. Zer da Ingurugiro Gaietarako Ikastegia?

- A) Udal-enpresa bat.
- B) Erakunde autonomo bat.
- C) Udal-sail bat.

20. Zenbat funtzionario mota daude Gasteizko Udalean?

- A) 4.
- B) 5.
- C) 6.

**21. Administrazio Publikoan lan egiteko
hautatze-probak 3 motatakoak izan daitezke.
Aukera hauetako zein da zuzena?**

- A) Oposizioa, izendapen askea, lehiaketa.
- B) Lehiaketa, proba teoriko-praktikoa, oposizioa.
- C) Oposizio-lehiaketa, oposizioa, lehiaketa.

**22. Zein hizkuntzan edo hizkuntzatan
eman behar die arreta herritarrei
Gasteizko Udalak?**

- A) Pertsona bakoitzak eskatzen duen hizkuntzan,
euskaraz edo gazteleraz.
- B) Gazteleraz bakarrik.
- C) Gasteizko Udalean gehien erabiltzen den



hizkuntzan bakarrik.

23. Zer jokabide-printzipio bete behar dituzte enplegatu publikoek?

- A) Baliabide eta ondare publikoak arretaz erabiltzea.
- B) Arduraz jokatzeta (azkar, eraginkortasunez eta arretaz).
- C) Nire lagunei eta senideei mesedeak egitea.

24. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak zein barne hartzen ditu?

- A) Emakumeak eta gizonak.
- B) Emakumeak bakarrik.
- C) Emakumeak eta neskek bakarrik.

25. 3 aukeretako bat hartuta, nola amaituko zenuke esaldi hau "Emakumeen aurkako indarkeria matxista..."?

- A) Gizonek egiten dute, emakumeen berdina direla uste dutelako.
- B) Emakumeek beste emakume batzuen aurka egiten dute, emakumeak direlako bakarrik.
- C) Giza eskubideak urratzea da.

26. Zein urtetan onartu zen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea?

- A) 2003an.
- B) 2022an.
- C) 2023an.



27. Zein esaldi da zuzena?

- A) Erakunde publikoekin lankidetzan aritzen diren enpresa pribatuek berdintasunaren alde lan egin behar dute.
- B) Erakunde publikoekin lankidetzan aritzen diren enpresa pribatuek ez dute berdintasunaren alde lan egin behar.
- C) Erakunde publikoekin lankidetzan aritzen diren enpresa pribatuak ez daude behartuta berdintasunaren alde lan egitera.

28. Hauetako zein diskriminazio-mota EZ da existitzen?

- A) Zuzeneko diskriminazioa.
- B) Zeharkako diskriminazioa.
- C) Ekintza positiboa diskriminazioa.

29. Zein da Berdintasunerako Legeko 16 printzipio orokorretako bat?

- A) Genero-ikuspegia sartzea.
- B) Gizonen ahalduntzea.
- C) Emakumeen inplikazioa.

30. Zer da Gasteizko Udala?

- A) Erakunde autonomo bat.
- B) Enpresa publiko bat.
- C) Administrazio Publiko bat.



31. Esaldi hauetatik, zein da zuzena?

- A) Administrazio bakoitzak legeek esaten dioten lana egiten du.
- B) Administrazio bat bestea baino handiagoa izateak esan nahi du beti handiagoak gehiago agintzen duela.
- C) Administrazio publikoak berdin antolatzen dira Estatuko lurralde guztietan.

32. Non bete behar dira Gasteizko Udalak hartzen dituen erabakiak?

- A) Gasteizko udalerrian.
- B) Euskal Autonomia Erkidegoan.
- C) Arabako Lurralde Historikoan.

33. Nori balio dio Espainiako Konstituzioak eta nola?

- A) Subjektibotasunez herritar guztien interes orokorretarako balio du.
- B) Objektibotasunez herritar guztien interes orokorretarako balio du.
- C) Objektibotasunez pertsona batzuen interes partikularrentzako balio du.

34. Nola jokatzen du Administrazio Publikoak?

- A) Modu koordinatuan.
- B) Modu zentralizatuan.
- C) Modu deszentralizatuan eta kontzentratuan.



35. Pertsonak Administrazio Publikoarekin duten komunikazioari buruzko esaldi hauetatik, zein da zuzena?

- A) Pertsona guztiek dute euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzeko eskubidea.
- B) Pertsona guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko betebeharra.
- C) Pertsona guztiek euskaraz komunikatu behar dute edozein bileratan.